


Mikro-ipuinak

2006-2007

Bernardo Atxaga, Amaia Aierdi, Andrea de la Torre, Ixai Salvo,
Markel Jimenez, Jon Iruretagoiena, Txomin Labiano,
Damian Montoya, Andrea Zambrano



Kirmen Uribe, Mikel Onsalo, Ulises Domech, Patricia Vicente,
Javier Armijo, Judit Saizar, Mikel Jimenez, Jon Barandiaran,
Pello Lasa, Ander Barandiaran, Xabier Olaz, Ruben Jimenez






Mikro-ipuinak



Iruñea, 2006 • Leitza, 2007



PAMIELA
argitaratza



EUSKARA
Kultur Elkargoa

Azala:
Collazos Comunicación

Babeslea:



Gure eskerrik beroenak epaimahaikide lanetan
aritu diren lagunei:
MIGEL ASIAIN, OSJO, ALBERTO BARANDIARAN,
JOXEMIEL BIDADOR eta INMA ERREA



© EKE, 2008

© Pamiela argitalpen honengatik

Diseinua eta fotokonposizioa:

Pamiela. Agustindarren industrialdea/Soltxate

G kalea, B6 nabea. 31013 Iruña

Tel.: 948 32 65 35 • Faxa: 948 32 66 02

pamiela@pamiela.org

www.pamiela.org

L.G.: Na-1.800/2008

ISBN: 978-84-7681-560-1


Nafarroan Ona Industria Gráficak moldatu eta egina

Agustindarren industrialdea/Soltxate

F kalea, B6 nabea. 31013 Iruña

Printed in Navarre

HITZAURREA



Irakurle agurgarri hori:

Euskara Kultur Elkargoak eta Pamiela Etxeak 2006an eta 2007an antolatutako «Mikro-ipu in lehiaketako» testurik hoberenak bilduak daude eskuetan duzun liburuan.

Sariketa hau Nafarroa osoko ikastetxeetan Lehen Hezkuntzan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan euskaraz ari diren ikasleei zuzendurik dago. Ipuinek ehun hitz baino gutxiago izan behar dute eta saririk garrantzitsuena idazle ospetsu baten bisita jasotzea da. 2006ko edizioan, Bernardo Atxagak banatu zituen sariak, Iruñeko Jaso Ikastolan banatu ere, eta 2007an berriz, Kirmen Uribe Leitzako Amazabal Institutuan egon zen, irabazleak ikastetxe haietakoak izan baitziren.

Bere txikian, *mikro-liburu* honek Nafarroako eremu guztietatik (Tutera, Cintruenigo, Irunberri, Agoitz, Atarrabia, Zizur, Leitza, Lesaka, Bera, Doneztebe, Lakuntza eta Iruñetik) parte hartu duten ikasle euskaldun guztiak omendu nahi ditu eta, bereziki, ikasleen partehartzea kudeatu duten irakasleak.



Mikro-ipuin lehiaketa 2006



Bernardo Atxaga

Amaia Aierdi Mariñelarena, Andrea de la Torre Torres,
Ixai Salvo Borda, Markel Jimenez, Jon Iruretagoiena,
Txomin Labiano, Damian Montoya,
Andrea Zambrano Ardila.



Zerua 1

Hegaldiak zortzi ordu iraun zuen, eta ia beste bi behar izan genituen maletak jaso eta gure bila etorritako autoa hartzeko. Umeak nekatuta zeuden, eta gazteenak segituan hartu zuen lo. Zaharrenak ordea ez. Isil-isilik zihuan, baina begirik itxi gabe. Eta hala segitu zuen gure jomugara iritsi ginenean ere. Galde egin genion azkenean, kezka bat ote zeukan. Berak baietz egin zuen buruarekin. «Ez ditut ikusi. Hainbeste denbora zerutik barrera, eta ez ditut ikusi», esan zuen. «Zein ez dituzu ikusi?», galdetu genion. «Pertsonak», esan zuen. «Zein pertsona?» «Hildakoak», zehaztu zuen.

BERNARDO ATXAGA



Nire etxeko ataria

Igande arratsalde euritsu eta aspertu batean, leihotik begira jarri nintzen. Korrika zetorren neska batek atentzioa deitu zidan. Ez dakit ongi zergatik baino larrituta zegoela ematen zuen. Nire atarian sartu zenez nora joanen ote zen pentsatzen hasi nintzen. Bigarren pisuko gazte zaratatsuenera agian? Edo laugarrenean bizi den amona hitzunarenera? Ez, lau katuekin bizi den andre bakarti eta misterioitsuaren etxera seguraski. Hori pentsatzen ari nintzela, bat-batean nire etxeko txirrina jo zuen. Harrituta ateko zulotik begiratu nuen eta neska hura nire atearen parean zegoen: neska ezezagun bat atean, korrika etortzea... Zerbait arraro sentitu nuen une horretan. Ez nintzen irekitzen ausartu, beldur nintzen.

AMAIA AIERDI MARIÑELARENA
D.B.H. 2., Iruñeko Jaso Ikastola
LEHEN SARIA

Ortzadarra eta Mazedonia

Egun batean, neska batek ortzadarra ikusi zuen, baina gose haundia zuenez, mazedonia jatea bururatu zitzaion. Suerte izan zuen eta ortzadarra ikusi zuen baina mazedonia...

Jolasten hasi zen eta bost minutu geroago ortzadarra zapaltzen ari zen. Gorri kolorearen gainean jarri zen, eta korrika hasi zen, ate batera ailegatu arte. Atea ireki zuen eta hor sagar bat zegoen. Gero, korrika egin zuen baina berde kolorearen gainean. Atea ireki eta udare berdea zegoen. Gero, laranja kolorean jarri zen eta atearen atzean laranja bat zegoen. Eta gero hori kolorean eta atearen atzean plata-noa zegoen. Horrela lortu zuen mazedonia.

ANDREA DE LA TORRE TORRES
L. H. 6., Uharteko Virgen Blanca I.P.
OHOREZKO AIPAMENA

Tximeleta beltzaren hegalak eguzki gorriaren aurrean ireki zirenean armiarmaren hari zuriak inguratu zituen.

Gau beltzean tximeleta beltza zuriz estalita zegoen.

IXAI SALVO BORDA
Batxilergo 2., Burlatako Askatasuna Institutua
OHOREZKO AIPAMENA

Aitona, aitona! Kontaiguzu ipuin bat!

Karramarroek nola inbaditu zuten lurra

«Bazen behin, Bilbon, kutsadurarengatik karramarroak oso azkar ugaldtu ziren. Lehen, ehundaka baziren, orain milioika. Ez hori bakarrik, baita burmuina handitu egin zitzairen ere eta Lur planeta konkistatzea bururatu zitzairen. Eta gizakiak erasotzen zituzten.

Gero gizakiek nutriak ekarri zituzten karramarroekin bukatzeko, baina nutriak areagotu ziren asko eta gizakiek pentsatu zuten orkak ekartzea nutriak jateko, baina orkak areagotu eta itsasoko animaliak akabatzen hasi ziren.»

—Horrela bukatzen da ipuina. Ala, ohera!

—Aitona, honela ezin du bukatu ipuinak...!

—Bale. «Gizakiek, orduan, kutsadura gutxitu zuten eta dena orekatu zen.» Ala, ohera!

—Eskerrik asko, aitona, ipuinarengatik.

MARKEL JIMENEZ ETA JON IRURETAGOIENA

L.H. 5., Iruñeko Hegoalde Ikastola

OHOREZKO AIPAMENA

Lehoi zintzoa

Bazen behin lehoi bat, oihaneko errege zena, baina bera ez zen Juan Carlos bezalakoa. Bera oso zintzoa zen. Norbait zuloren batean harapatuta gelditzen bazen, oso gustura laguntzen zion. Baina behin oihaneko animaliak errepublika izan nahi zutela esan eta erregeak bere kargua utzi behar zuenean dena aldatu egin zen. Nola utziko errege zintzo hau lanik gabe? Eta iritziz aldatu zuten. Baina, azkenean erregeak argi esan zuen:

—Hobeto biziko gara oihan hau errepublika bada.

Denek txalotu zuten lehoiaren hitzaldia. Hurrengo presidente bozketan lehoiak irabazi zuen eta oihaneko presidentea egon zen jubilatuta eta zahartu arte, baina ez pentsa gazte jubilatuta zenik.

TXOMIN LABIANO

L. H. 6., Uharteko Virgen Blanca I.P.

OHOREZKO AIPAMENA

Gertaerak

Lanbro handi batek ilargia estaltzen zuen. Etxarte ilun batean zegoen, zergatik egin duen bere buruari galdezka. Pistola eskuetan, negarez hasi da. Behin eta berriro ikusten du irudi berbera, amets gaizto bat balitzan: emaztea lurrean, odola... Orain ez du inor ondoan laguntza eskainiko dionik. Maite zuen pertsona bakarra akabatu du. Ez dio bizitzari zentzua bilatzen, ez du beste irtenbiderik, pistola tin-ko hartu du...

DAMIAN MONTOYA
D.B.H. 2., Iruñeko Jaso Ikastola
FINALISTA

Elur zuriaren gainean maluta gorriak aurkitu nituen. Jarraitzen saiatu nintzen arren bost elur maluta gorri besterik ez zeuden. Bost maluta gorrien eskuinean beste bost maluta gorri, eta nire azpian maluta gorritz beteriko putzua. Begiak nire gorputzera zuzentzerakoan elur maluta gorriak odola bihurtu ziren. Nire bihotz zaurituaren odola.

IXAI SALVO BORDA
Batxilergo 2., Burlatako Askatasuna Institutua
FINALISTA

Pottolo

Kaixoo! Ni Pottolo naiz! Liburu bat naiz eta kutxa batean nago. Gauza zaharren artean, Oloriz familiaren etxeko ganberan. Ni hemen oso aspertuta nago, lehen, ume guztiek irakurtzen ninduten, baina orain...

Egun batean, Irene izeneko neskatila batek hartu ninduen eta nire barruko istorioak asko gustatzen zitzaizkion. Eskolatik etorri, eta segidan, bere logelara joaten zen ni irakurtzera.

Behin, Irene logelan irakurtzen zegoela, bat-batean desagertu zen. Nik gauza arraro batzuk sentitu nituen nire barrualdean. Irene ikusi nuen, nire istorioetako marrazkietan zegoen!!

Eta orain, hemen nago bakarrik, oraindik Irene nire barruan baitut, eta batzuetan bere garrasiak entzuten ditut.

ANDREA ZAMBRANO ARDILA
L. H. 6., Uharteko Virgen Blanca I.P.
FINALISTA

Mikro-ipuin lehiaketa 2007



Kirmen Uribe

Mikel Onsalo Lezea, Ulises Domech Villar,
Patricia Vicente Bracete, Javier Armijo Pradales,
Judit Saizar Ardanuy, Mikel Jimenez Vicente,
Jon Barandiaran Ziordia, Pello Lasa Apezetxea,
Ander Barandiaran Ziordia, Xabier Olaz Moratinos,
Ruben Jimenez Etxarri.



Liburua

Behin amak
azokara eraman ninduen.
Han txito bat erosi zidan.
Txitoa kartoizko kutxa
batean zetorren.
Amak nire eskuetan
jarri zuen kutxa.

Senti nezakeen
nire esku-ahurretan
txitoaren hanka txikiak.

Liburua horixe da:
kartoizko kutxa bat
barruan zerbait bizia duena.

KIRMEN URIBE



Udazkena

Udazkeneko egun zoragarri bat zen. Gaztainondo zaharkitua jada usteldua zegoen: soilik bi hosto zituen zintzilik, biak elkarri begira. Eta goizeroko erretorika zen ea nor erori behar zen lehenik jakin nahi izatea, bizitzari lotu nahian.

Haize bolada batek biak bota zituen kolpean, bizitzak dakien moduan.

MIKEL ONSALO LEZEA
D.B.H. 2., Leitzako Amazabal Institutua
LEHEN SARIA

Txikipuin

Orain fantasia bat marraztu ahalko nuke,
baina ez dut egingo.

Orain istorio bat kontatuko nuke,
baina ez dut egingo.

Orain bertso bat marraztu ahalko nuke,
baina ez dut egingo.

(Nire aita ta ama
Bereiztuak daude
Baina etzait inporta
Niri bate ere)

Orain komiki bat egingo nuke,
baina ezin dut egin.

Hau dena ez dut egingo, ipuin txiki bat baizik.

Bazen behin hain txikia zen gizon bat,
ipuin honetan sartzeko bilatu nuela
eta ez nuen aurkitu.

ULISES DOMECH VILLAR
L. H. 6., Iruñeko San Frantzisko I. P.
OHOREZKO AIPAMENA

Abarkak

Arratsalde bat zen. Abarkak errotera joan nintzen Tolosara. Abarka piloa zegoen, eta ez nekien zein aukeratu.

Azkenean, errusiar katiuskak aukeratu nituen, «ingurutxo» dantzan aritzeko, vodka eta guzti.

PATRICIA VICENTE BRACETE
D.B.H. 2., Leitzako Amazabal Institutua
OHOREZKO AIPAMENA

Non ote zegoen? Hiru ordu zeramatzan basamortua zeharkatzen. Harritzekoa zen han berorik ez egitea. Orduan, hiri bat ikusi zuen. «Hiri bat hemen?», zioen.

Ez zegoen gizakien arrastorik. Haizearen mugimendurik ez zen nabarmentzen. Pertsona hura bakarrik zegoen, leku idor eta isil hartan. Ez zuen bizirik asko iraungo. Janari bila joan zen, etxeetako edozein txokotan jateko zerbait aurkitu nahian. Bat-batean, trumoi hotsak entzun ziren. Hiria apurtzen joan zen, basamortuaren erdian zulo erraldoi bat sortu zen, han zegoen guztia irentsiz.

—Denbora bukatu da!, —esan zuen irakasleak.

JAVIER ARMIJO PRADALES
D.B.H. 3., Atarrabiako Paz Ziganda Ikastola
OHOREZKO AIPAMENA

Nire lilia

Ate hartatik sartu zen nire bizitzako lilia. Bihotza mila taupadetan. Formula bateko autoa bezain bizkor zihoan nire motorra; lehertu beharrean, mila zatitan puskatzera zihoan.

Bere gorputz kurbatua niregana gerturatzen zen poliki-poliki, denbora gelditzear zelakoan. Bere ezpain lodiak nire aurpegirantz hurbildu zituen xamurki. Eta, muxuaren esperoan nintzelarik, ele robotikoek belarri ondora «goizeko zazpiak» xuxurlatu zidaten.

Arranopola!

JUDIT SAIZAR ARDANUY
D.B.H. 3., Leitzako Amazabal Institutua
OHOREZKO AIPAMENA

Deabruak langabezian

Aita santuak infernua metafora bat zela esan zuenetik, deabruak lapiko eta sarde artean langabezian geratu ziren. Baina deabruak leloak ez direnez, denek lan on batekin amaitu zuten, ogibide desberdinak bilatuta. Abenturak eta ariketa fisikoa gustukoa zutenak lapur, soldadu edo diruz ordaindutako hiltzaileekin bat egin ziren. Beste batzuk nahiago izan zuten hitzekin jolastu, berbak pozo bihurtzeko; horiek irrati esatari bihurtu edo politikan buru-belarri sartu ziren; bestalde, denbora pasa bezala, zaharrei lapurtu edo apaiz agertzen ziren.

Azkenean bezero barik geratu ziren, ze kristau kopurua gutxituz infernuko ziegak karaoke bihurtu ziren; horregatik, karakolen bat belarrira eramanda bafleen pitada entzuten da.

MIKEL JIMENEZ VICENTE
D.B.H. 1., Cintruenigoko IES La Paz
FINALISTA

Hitz kontatzailea

Bazen behin Patxi izeneko mutiko bat, 11 urte zituen ea berezitasun bat zuen: hitzak kontatzen zituen.

Patxi egun horretan etxetik atera zen eta lagunekin elkartu zen, errubioa eta begi urdinekoa zen.

—Kaixo Patxi, —esan zuen bere lagun Aitorrek.

—Bi.

—Bi zer?, —galdetu zion.

—Bi hitz esan dituzula, —Patxik.

Ibiltzen hasi zirenean, gizon batek entzun eta esan zuen:

—Zuk hitzak kontatzen al dituzu?

—Bost.

—Oso ongi, —mintzatu zitzaion.

—Jendeari hitzak kontatzen lagundu nahi diozu?

—Bai noski.

Eta horrela jendeari laguntzen hasi zen, eta ni ipuin honen hitzak kontatzera joan nintzen.

JON BARANDIARAN ZIORDIA
L. H. 6., Iruñeko San Frantzisko I. P.
FINALISTA

Nire bizitza

Denbora asko egon naiz ilunpean, ezer egin gabe, geldirik, familiako guztiekin nire inguruan. Gaur, leku beltz eta aspergarri horretatik atera eta lanean hasi naiz. Idazlan bat egi-ten egon naiz bi orduz, eta orain oso nekatuta nago, baina, zorionez, atsedena eman didate. Ordu bete pasa ondoren, Matematikako ariketak jarri dizkidate; zailak ziren arren, ongi atera zaizkit. Ingelesean, urduri jarri naiz, eta oso mantso idatzi dut; horren ondorioz, denbora gehiago behar izan dut mahai gainean.

Azkenean, tragedia bat suertatu zait: ezin nuela gehiago idatzi. Dena galduta zegoela pentsatzean, tinta kartutxo berria sartu didate boligrafo bat bait naiz. Horrelakoa da gure bizitza.

PELLO LASA APEZETXEA
L. H. 6., Iruñeko San Frantzisko I. P.
FINALISTA

Munduko ipuinik luzeena

Behin batean, bazen ume bat Iruñean, mikro-ipuin bat egin behar zuena. Txominek ideia asko zituen, eta denak apuntatzen hasi zen, baina zortzi orri ideiez beteta atera zitzaizkion, eta gutxi batzuk aukeratu zituen. Hala ere, ideia pila bat zeukan, eta idazten hasi zen, kapituluak eta kapituluak eta kapituluak. Lehiaketa eguna iritsi zen. Ipuina prest zegoen, baina akats bat zeukan, 4.000 orri zeuzkan. Hala ere, lehiaketara eramanean zuen, eta mikro-ipuin hobereenaren saria lortu ordez, munduko ipuinik luzeenaren saria lortu zuen.

ANDER BARANDIARAN ZIORDIA
L. H. 6., Iruñeko San Frantzisko I. P.
FINALISTA

Azken solairua

Azpian dudan solairua. Gauza on guztiak bukatzen eta berriro hasten diren solairua. Aurrekoa baino isilago eta hurrengoa baino zaratatsuagoa.

Bukaerako pisu horretara iristeko, bizitza osoko solairuak garatuak izan behar dira. Eta han erorita (eserita?) nago, azken solairu horren atariaren aurrean dagoen eskaileran. Ireki egin da.

Ez da solairu bat, igo ditudan pisu guztien oroimena baizik. Azpialdean dudana.

XABIER OLAZ MORATINOS
D.B.H. 4., Atarrabiako Paz Ziganda Ikastola
FINALISTA

Ate misteriotsua

Bazen behin neska oso pobre bat. Egun batean basora joan zen, eta ate bat aurkitu zuen baso erdian. Ate erdia zurezkoa zen eta beste erdia urrezkoa; neska pentsatu gabe sartu zen eta barruan gela handi bat urrez beteta zegoen. Neska pentsatu gabe urrea hasi zen hartzen, baina konturatu zen neska bat zegoela gelan.

—Nor zara zu?, —galdetu zion neskak, eta bat-batean bere etxean agertu zen urrez inguratuta.

RUBEN JIMENEZ ETXARRI
D.B.H. 1., Iruñeko Eunate Institutua
FINALISTA



AURKIBIDEA

HITZAURREA	3
------------------	---

2006ko «Mikro-ipuin lehiaketa»

Zerua 1	
BERNARDO ATXAGA.....	6
Nire etxeko ataria	
AMAIA AIERDI MARIÑELARENA	7
Ortzadarra eta Mazedonia	
ANDREA DE LA TORRE TORRES.....	8
Tximeleta beltzaren hegalak...	
IXAI SALVO BORDA	9
Karramarroek nola inbaditu zuten lurra	
MARKEL JIMENEZ eta JON IRURETAGOiena	10
Lehoi zintzoa	
TXOMIN LABIANO	11
Gertaerak	
DAMIAN MONTOYA.....	12
Elur zuriaren gainean...	
IXAI SALVO BORDA	13
Pottolo	
ANDREA ZAMBRANO ARDILA	14

2007ko «Mikro-ipuin lehiaketa»

Liburua	
KIRMEN URIBE.....	16
Udazkena	
MIKEL ONSALO LEZEA	17
Txikipuin	
ULISES DOMECH VILLAR.....	18
Abarkak	
PATRICIA VICENTE BRACETE	19
Non ote zegoen?	
JAVIER ARMIJO PRADALES	20
Nire Lilia	
JUDIT SAIZAR ARDANUY.....	21
Deabruak langabezian	
MIKEL JIMENEZ VICENTE	22
Hitz kontatzailea	
JON BARANDIARAN ZIORDIA.....	23
Nire Bizitza	
PELLO LASA APEZETXEA	24
Munduko ipuinik luzeena	
ANDER BARANDIARAN ZIORDIA	25
Azken solairua	
XABIER OLAZ MORATINOS	26
Ate misteriotsua	
RUBEN JIMENEZ ETXARRI	27

Mikro-ipuinak

liburuaren inprimaketa 2008ko
maiatzean burutu zen
Ona Industria Gráfica moldiztegian,
fotokonposiziorako
A Garamond eta Bernhard Modern
letra motak erabiliz.
Lehenbiziko edizio hau
lau mila alekoa
izan da.



Mikro-ipuin lehiaketa



Liburuxka honetan biltzen diren testuak hoberenak izan dira Euskara Kultur Elkargoak eta Pamiela Argitaletxeak antolatu duten I. eta II. Mikro-ipuin lehiaketan. Haiekin batera, BERNARDO ATXAGAK eta KIRMEN URIBEK mikro-ipuin bana ere eskaini digute *mikro-liburu* honetan.

